

## GURE KULTUR KONTSUMOA AZTERGAI

Deskribapena: Kike, Letren fakultate kanpoan agertzen da gazteekin elkarrizketan.

Kike: “Zuk euskeraz zer kontsumitzen duzu kultur mailan?”

Lehenengo neska: “Telebista bai ikusten detela, nik Etb euskeraz etxean hori bastante ikuset. Ez det irakurtzen asike ez erderaz ez euskeraz ez ezer.”

Lehenengo bikoteko lehenengo neska: “Telebista gehio ikusten det irakurri baino.”

Lehenengo bikoteko bigarren neska: “Bai, telebista eta musika entzun.”

Bigarren neska: “Normalen berriak Etb-n ikusten ditut eta bueno, hortaz aparte ba ez dut asko ikusten, euskeraz eta ez dut irakurtzen normalean.”

Lehenengo mutila: “Ba euskeraz gehien bat kontsumitzen detena da musika, euskal taldiak eta entzuten eta gero ba Eitb bat ba eguraldia ikusten det eta gero ba notiziak eta.”

Kike: “Irakurri eta?”

Lehenengo mutila: “Irakurri ez, ez det gehiegi irakurtzen.”

Bigarren mutila: “Hainbat liburu baina gehienak erderaz.”

Hirugarren mutila: “Musika denetarik entzuten det eta euskeraz gainera talde asko gustoko ditut.”

Bigarren bikoteko neska: “Irratia entzuten dugunean, nik adibidez euskeraz bakarrik.”

Lehenengo bikoteko bigarren neska: “Pelikulak askotan ba erderaz, euskeraz ba ez darelako edo...”

Laugarren mutila: “Liburuak, literatura eta musika e bai baina normalian Internet bidez gehio. Telebista ez dut asko ikusten, baina programa hau adibidez bai.”

Kike: “Ah bai?”

Laugarren mutila: “Bai, bai noski!”

Bigarren mutila: “Telebistan gazteleraz.”

Kike: “Aja.”

Bosgarren mutila: “Telebistan saioen bat, orain, orain ja ez hainbeste, baina lehen igual ikusten nuen Wazemank eta honek asko gustaten jaten ta oain ja albistegiak.”

Lehenengo bikoteko neska: “Goenkale gehien bat ta e berriak eta hola.”

Seigarren mutila: “Liburuak, aldizkariak musika dana, azkenean dana. Telebistan ez hainbeste zeren euskaraz emititzen diren programak eta ez zaizkit asko gustatzen baina beste arloetan bai.”